

Deialdia, Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagokion Familia-langilearen 12 lanpostu, gehienez, oposizio-lehiaketaren bidez betetzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak ezartzen dituen abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

Iruñeko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko azaroaren 25ean hartutako Erabakiaren bidez, honako hau ebatzi du:

1. Onestea oposizio-lehiaketa bidez sartzeko deialdi hau, eta bere oinarriak ere.
2. Deialdi hau eta bere oinarri eta eranskinak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Deialdi hau eginen da aplikatu beharreko araudian xedatutakoari eta oinarri hauetan ezartzen denari jarraikiz:

OINARRIAK

1. -Deialdiaren xedea.

1.1. Deialdi honen xedea da, lehia askearen, berdintasunaren, merezimenduaren, gaitasunaren eta publikotasunaren printzipioak betez, eta oposizio-lehiaketa bidezko prozeduraren bitartez, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen babesean egiten den aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuaren barruan, Familia-langilearen 12 lanpostu -lan-araubidekoak eta D mailakoak-, gehienez, betetzea Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko. Behin betiko lanpostu zehatzak eta lanpostu-zenbakien identifikazioa, baldintzak eta araubide juridikoa lanpostu hutsak hautatzeko unean onetsiko dira, xede horretarako deitutako lekualdatze-lehiaketa ebatzi ondoren, hala dagokionean.

1.2. Aipatu lanpostu hutsak honako txanda honetan banatuko da:

- a) Txanda irekia: gehienez ere 10 lanpostu.
- b) Erreserba-txanda % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonendako: gehienez ere 1 lanpostu.
- c) Erreserba-txanda genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat: gehienez ere 1 lanpostu.

1.3. Ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonendako lanpostuak erreserbatzen diren hautapen-prozeduretan, izangaiek hautaprobak gainditu beharko dituzte eta adierazi



duten desgaitasun maila eta kasuan kasuko zereginak eta eginkizunak betetzeko bateragarritasuna frogatu beharko dituzte.

1.4. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat lanpostuak erreserbatzen diren hautapen-prozeduretan, izangaiek hautapen-prozesuak gainditu beharko dituzte eta genero-indarkeriaren biktimak direla frogatu beharko dute.

1.5. Desgaitasuna dutenentzako erreserba-txandan edo genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako erreserba-txandan izangaiek hautaprobak gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa lortzen ez badute, bete gabe gelditzen diren lanpostu hutsak txanda irekikoei gehituko zaizkie, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren 15.3 artikuluan ezarritako hurrenkerari jarraikiz.

1.6. Bestetik, desgaitasuna dutenentzako edo genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako erreserba-txandetan, eskaintzen diren lanpostu hutsen kopurua baino izangai gehiagok gainditzen badute prozesua, txanda horietan lanpostua eskuratzen ez dutenek aukera izanen dute txanda irekiko lanpostu hutsak eskuratzeko, txanda horretako izangaiekin lehian eta eskuratutako amaierako puntuazioaren arabera.

2.- Aplikatzekoa den araudia.

Prozedura hau gauzatzeko, honako hauetan xedatutakoa beteko da: 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriena; 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena; 7/1985 Foru Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen; aplikatzekoak diren gainerako arauak, eta deialdi honen oinarriak.

3.-Baldintzak.

3.1. Izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte oposizio-lehiaketa honetan onartuak izateko:

3.1.1. Izangai guztiek bete beharrekoak:

a) Espainiako nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio langileen zirkulazio librea aplikagarria duen eremuko estatu batekoa.

Espainiako nazionalitatea, Europar Batasuneko beste estatu bateko edo aipatu nazioarteko itunak sinatutako beste estatuetako nazionalitatea duten herritarren ezkontideek ere parte har dezakete, betiere, zuzenbidez bereizita ez badaude, eta, orobat, beren ondorengoek eta



ezkontideenak –zuzenbidez bereizita ez badaude–, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo adin horretatik gorakoak izanda haien kargura bizi badira.

b) Hamasei urte beteak izatea eta ez gainditzea erretiroa nahitaez hartzeko ezarritako gehieneko adina.

c) Gizarte- eta osasun-laguntzako Teknikariaren titulua edo Erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikari-titulua, edo Gizarte- eta osasun-laguntzako teknikariarena, edo Mendekotasun egoeran daudenei gizarte-erakundeetan gizarte- eta osasun-arta emateko profesionaltasun-ziurtagiria (Kodea: Sscs0208) edo Pertsonen etxean bertan gizarte- eta osasun-arta emateko ziurtagiria (Kodea: Sscs0108), gehi Eskola Graduatu, lehen mailako Lanbide Heziketako titulua edo horien titulu baliokidea, edo hura erdiesteko maneran egotea eskabideak aurkezteko mugaegunean.

Tituluak atzerrian lortu badira, baliozkotuak edo homologatuak daudela frogatzen duten frogagiriak eduki beharko dira. Baldintza hori ez zaie aplikatuko beren lanbide kualifikazioaren aitortpena, lanbide arautuen esparruan, Europako Erkidegoko zuzenbideko xedapenen babesean eskuratu duten izangaiei.

d) Behar besteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea bete behar dituen eginkizunetan aritzeko.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzuetik bereizita ez izatea.

3.1.2. Berariazko betekizunak desgaitasuna duten pertsonen erreserbatutako txandako izangaiatzat.

Desgaitasuna duten pertsonendako erreserba-txandako izangaiek, 3.1.1. apartatuan adierazitako betekizunez gain, desgaitasuna ofizialki aitortua izan beharko dute, % 33ko edo gehiagoko graduan.

3.1.3. Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako erreserba txandako izangaien berariazko betebeharrak.

Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako erreserba txandan parte hartu nahi duten emakumeek, 3.1.1 apartatuan aipatzen diren betebeharrak betetzeaz gainera, genero-indarkeriaren biktimak izan behar dute.

3.1.4. Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearekin bat, adingabeekin ohiko harremana edukitzea eskatzen duten lanpostuetara sartzeko ezinbestekoa da epai irmo baten bidez kondenarik jaso ez izana sexu-askatasunaren eta –ukigabetasunaren aurkako delituen batengatik edo gizakien salerosketagatik.



Betekizun hori egiaztatzeko Giza Baliabideetako Idazkaritza Teknikoari baimena eman beharko zaio ziurtagiri hori eska diezaion Sexu-delitugileen Erregistro Zentralari, edo abenduaren 11ko 1110/2015 Errege Dekretuak araututako Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztu.

3.1.5. Ezin izanen dute parte hartu Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan deialdiaren xede den lanpostuan langile finko gisa ari diren langileek.

Baldintza hori betetzen ez duten pertsonak ezin izanen dira izendatu, eta baliorik gabe geratuko dira haien jarduketa guztiak, beren eskaeraren faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzukizuna ezertan galarazi gabe.

3.2. Izangaiek deialdi honen oinarrietan ezartzen den unean frogatu beharko dituzte aurreko baldintza horiek. Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den unean eduki beharko dira, eta indarrean egon beharko dute lanpostuaren jabetza hartu arte.

4.-Eskabideak, tasak eta eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

4.1. Eskaerak aurkezteko epea.

Deialdian parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Eskaerak aurkezteko ezarritako epea luzaezina izanen da.

4.2. Eskaera aurkeztea eta formalizatzea.

Hautapen-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek eskaera telematikoki aurkeztu beharko dute, Internet bidez, www.pamplona.es webgunean, honako nabigazio-bide honi jarraiki: "Izapideak eta lizitazioak", "Lan-eskaintzak", "Enplegu publikoa", "Enplegu publikoko deialdiak", deialdiari dagokion aipamenean.

4.3. Tasak.

Azterketa-eskubideengatik eta espediente formalizatzeagatik ordaindu beharreko tasa honako hau da:

- D mailako lanpostuak: 10 euro

Tasa telematikoki ordainduko da, eskaera formalizatzeko unean, telematikoki ordaintzeko sistema seguru baten bidez.

Azterketa-eskubideen tasa ordaintzen ez bada, izangaia baztertu egingen da.

Azterketa-eskubideen tasa ordaintzeak ez du inola ere ordeztuko eskaera behar den epean eta moduan aurkeztu beharra.



4.4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

4.4.1. Eskaera aurkezteko unean, izangaiek eskaneatuta aurkeztu beharko dute honako dokumentazio hau:

- Gizarte- eta osasun-laguntzako Teknikariaren titulua edo Erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikari-titulua, edo Gizarte- eta osasun-laguntzako teknikariarena, edo Mendekotasun egoeran daudenei gizarte-erakundeetan gizarte- eta osasun-arta emateko profesionaltasun-ziurtagiria (Kodea: Sscs0208) edo Pertsonen etxean bertan gizarte- eta osasun-arta emateko ziurtagiria (Kodea: Sscs0108), gehi Eskola Graduatua, lehen mailako Lanbide Heziketako titulua edo horien titulu baliokidea
- Abenduaren 11ko 1110/2015 Errege Dekretuak araututako Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa, Giza Baliabideetako Idazkaritza Teknikoari baimenik eman ezean hura eskatzeko.

4.4.2. Ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortua duten izangaiek hori frogatzeko agiria -organo eskudun batek emana- aurkeztu beharko dute parte hartzeko eskabidearekin batera.

Era berean, desgaitasuna duten izangaiek probak egiteko denboraren eta/edo bitartekoen egokitzapenak eskatuz gero, hala jakinarazi beharko dute eskaeran, eta zehaztu, horretarako prestatutako espazioan, zein den eskatutako egokitzapena edo zein diren eskatutako denboraren eta/edo bitartekoen doikuntzak. Horretarako, izangaiek egoki jotzen dituen agiriak aurkezten ahalko ditu eskaera aurkezteko unean, 4.4.1. apartatuan ezarritakoarekin bat.

4.4.3. Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako erreserba-txandan parte hartzen duten emakume izangaiek baldintza hori egiaztatu beharko dute, genero-indarkeriako delitu batengatik kondena-epaia, babes-agindua edo genero-indarkeriaren biktimaren aldeko kautelazko neurri bat erabakitzen duen beste edozein ebazpen judizial aurkeztuz, edo Ministerio Fiskalaren txostena aurkeztuz, demandatzailea genero-indarkeriaren biktimak delako zantzuak daudela adieraziz. Halaber, genero-indarkeriazko egoerak egiaztatu ahal izanzen dira gizarte zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo genero-indarkeriaren biktimentzako Administrazio Publiko eskudunaren harrera-zerbitzuen ziurtagiriaren eta txostenaren bidez.

4.4.4. Agiri horiek telematikoki aurkeztu beharko dira, deialdiaren aipamenean ezarritako estekaren bitartez.

4.4.5. Aski izanen da dokumentazioaren kopia arruntak aurkeztea, baina aurkeztutako datuak edo agiriak ez-zuzenak edo faltsuak badira, eskatuko dira behar diren erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

5. Izangaien onarpena.



5.1. Eskaerak aurkezteko epea amaituta, deialdiaren izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko da, eta Iruñeko Udalaren webguneko (www.pamplona.es) deialdiaren fitxan argitaratzeko aginduko da.

Aipatu izangai-zerrendan, baita hautapen-prozeduraren ondorengo jarduketetan ere, genero-indarkeriaren biktimendako erreserba-txandako hautagai diren emakumeak izen faltsuaren bitartez identifikatuko dira, eta izen horiek emakume bakoitzari esleituko zaizkio modu pertsonalean, publikotasunaren eta gardentasunaren printzipioak aplikatzeari utzi gabe.

5.2. Behin-behineko zerrenda argitaratu eta biharamunetik hasita, izangai baztertuek hamar egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, haiek zuzentzeko. Erreklamazioak telematikoki aurkeztuko dira www.pamplona.es webgunean argitaratutako deialdiaren fitxaren bidez.

5.3. Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta horiek ebatzi ondoren, onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onetsi eta Iruñeko Udalaren webguneko deialdiaren fitxan argitaratuko da.

Baztertutako izangairik ez badago, zuzenean onetsiko da onartuen behin betiko zerrenda, eta Iruñeko Udalaren webguneko deialdiaren fitxan argitaratuko da.

5.4. Izangaiei ez zaizkie tasak itzuliko, baldin eta baztertuak izan badira beraiei egotz dakizkiekeen arrazoiengatik.

5.5. Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi bertan ageri direnei aitortzen zaienik betetzen dituztela ebazpen honen bidez iragartzen den prozeduran eskatutako baldintzak. Hautapen-prozedura gainditu ondoren izangaiek aurkeztu beharreko dokumentazioa aztertzen denean egiaztatzen bada ez dutela baldintzaren bat betetzen, interesdunek prozedura honetan parte hartzeagatik izan ditzaketen eskubide guztiak galduko dituzte, ezertan galarazi gabe faltsukeria dela-eta legozkiekeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

6. Kalifikazio-epaimahaia.

6.1. Kalifikazio-epaimahaia izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi baino lehen izendatuko da. Kide-kopurua bakoitia izanen da, gutxienez hiru, eta horien ordezkoen kopuru bera izendatu beharko da. Izendapen hori Iruñeko Udalaren webguneko deialdiaren fitxan argitaratuko da.

6.2. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ez eta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa ez badago bertan.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balio izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute, edo, hala behar izatera, haien ordezkoek, kontuan harturik ordezko



izan daitezkeela, baita ere, epaimahaikide ordezeko gisara izendatutakoak, bigarren ordezpena egitea beharrezkoa izanez gero.

6.3. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari hori jakinarazi, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan horretarako aurreikusiak dauden arrazoiak suertatzen badira.

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errekusatzea, aipatu inguruabar horiek gertatzen badira.

6.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeko eta aplikatzeko moduari buruz sor daitezkeen gorabehera guztiak.

6.5. Epaimahaiak aholkulari espezialistei deitzen ahalko die, bere eskumeneko jarduketa guztietan edo horietako batzuetan laguntzeko. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira arituko, eta horietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

7.-Oposizio-lehiaketaren garapena.

7.1. Oposizio-lehiaketak fase hauek izanen ditu:

a) Oposizioaldian, proba bat eginen da, lanpostuaren funtzioak zuzen eta egoki betetzeko beharrezkoak diren ezagutzei eta gaitasunei buruz.

b) Merezimenduen balorazioko fase edo lehiaketaldian, izangaiek alegatu dituzten merezimenduen balorazioa eginen da, deialdiaren II. eranskinean dagoen baremoaren arabera.

Deialdi honetako faseak hurrenkera honetan eginen dira: lehendabizi, oposizioaldia, eta hura bukatuta, lehiaketaldia.

7.2. Oposizioaldia:

7.2.1. Oposizioaldia 2023ko bigarren seihilekotik aurrera hasiko da.

7.2.2. Prozeduran onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onestean adieraziko dira proba egiteko eguna, tokia eta ordua.

7.2.3. Oposizioaldiko probarako dei bakarra eginen da, eta izangaiek nortasun agiri nazionala, pasaportea edo gidabaimena eraman beharko dute. Oposiziotik baztertuak izanen dira iragarritako egunean, orduan eta tokian agertzen ez diren izangaiak eta aipatu diren agirien bidez identifikatzen ez direnak.

7.2.4. Oposizioaldiko proba oinarri honetan zehaztutakoa izanen da, eta deialdiaren I. eranskinean zehazten den gai-zerrendako gaiak buruz eginen da.



Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean zein egunetan argitaratu eta egun horretan indarra duen araudiaren arabera eskatuko dira gai guztiak.

Hautapropa egiteko, desgaitasun aitortua duten izangaienez posible eta beharrezkoak diren denbora eta baliabide egokitzapenak eginen dira, eskabidean halakorik eskatu badute.

7.2.5. Oposizioaldiak honako proba hau izanen du:

- Proba bakarra: izangaiek deialdi honen I. eranskinean jasotako gai-zerrendaren gaiei buruzko 100 galdera –test modukoak– gehienez erantzun beharko dituzte idatziz, gehienez ere 120 minutuko epean. Galdera bakoitzak hiru erantzun posible izanen ditu aukeratzeko, baina bat bakarra izanen da baliozkoa.

Proba egin aurretik zehaztuko dira hori baloratzeko irizpideak eta nola zigortu akatsak hainbat erantzun-aukera dituzte dituzten galderetan.

Ariketa honetan gehienez ere 60 puntu eskura daitezke. Bazterturik geldituko dira ariketaren balioaren % 50 lortzen ez duten izangaiek.

7.2.6. Behin probaren kalifikazioa amaituta, epaimahaiak deialdiaren web-fitxan argitaratuko du aurkeztutako izangaien zerrenda, lortutako behin-behineko kalifikazioekin, eta 5 egun balioduneko epe bat irekiko du, argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek erreklamazioak egin ditzaten eta eskubidezkoztat jotzen duten guztia alega dezaten balorazioei dagokienez.

Alegazioak aurkezteko epea amaituta, oposizioaldiko behin betiko emaitzak argitaratuko dira.

7.3. Lehiaketaldia.

7.3.1. Oposizioaldiko behin betiko emaitzak argitaratzean, 10 egun balioduneko epea emanen zaie fase hori gainditu duten izangaiei, aurkez ditzaten II. eranskinean ezarritako merezimenduak justifikatzeko agiriak.

7.3.2. Aipatu agiriak Iruñeko Udalaren erregistro elektronikoro orokorraren bidez aurkeztu beharko dira.

Horri dagokionez, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Egindako zerbitzuen ziurtagiria, dagokion administrazio publikoko organo eskudunak emana, non, zehatz-mehatz jasoko baitira Iruñeko Udala ez den beste administrazio publiko batzuetan egindako zerbitzuak, II. eranskineko baremoan aurreikusitako baldintzetan, eta berariaz adieraziko baitira lanpostuaren izena (dagokion plantilla organikoaren arabera), lanpostuaren maila, egindako zerbitzu bakoitzaren hasiera- eta amaiera-datak, bai eta egoki den beste edozein datu gehigarri ere.



- Deialdi honen II. eranskinean ezarritako baremoaren arabera alegatzen dituzten merezimenduak egiaztatzeko agiriak.

Ez dira aurkeztu beharko, deia egiten duen organoak Epaimahaiari zuzenean emanen baitizkio, honako hauek:

-Iruñeko Udalean egindako eta aitortutako zerbitzuen egiaztatzea.

-Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan deialdiaren xede den lanpostu berean sartzeko prozesu bat lanposturik eskuratu gabe gainditu izanaren egiaztatzea.

7.3.3. Merezimenduen balorazioan, bakarrik hartuko dira kontuan deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunera arte egindakoak.

Alegatutako merezimenduak deialdi honen II. eranskinean ezarritako baremoaren arabera kalifikatu eta puntuatuko dira.

7.3.4. Epaimahaiak ezin izanen du inolaz ere kontuan hartu alegatu gabeko eta agirien bidez egiaztatu gabeko merezimendurik, ezta apartatu bakoitzerako baremoan ezarritako gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.

Epaimahaiak izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduei buruzko argibideak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu.

7.3.5. Nahikoa izanen da agirien kopia sinpleak aurkeztea; hala ere, emandako datuak edo agiriak okerrak edo faltsuak badira, horrek berekin ekarriko du halako kasuetarako ezarritako erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak eskatzea.

7.3.6. Merezimendu-lehiaketaren kalifikazioa amaituta, epaimahaiak deialdiaren web-fitxan argitaratuko du izangaiek lortutako behin-behineko puntuazioa, eta 5 egun balioduneko epea irekiko du, argitaratu eta biharamunetik hasita, izangaiek alega dezaten eskubidekotzat jotzen duten guztia.

7.3.7. Epaimahaiak behin-behineko emaitzen aurrean aurkezturiko erreklamazioak ebatzi ondoren, deialdiaren web-fitxan argitaratuko dira merezimenduen baremazioaren behin betiko emaitzak.

8. Kalifikazioa.

8.1. Behin oposizioaldia eta lehiaketaldia amaituta, epaimahaiak deialdiaren web-fitxan argitaratuko du proba gainditu duten izangaien zerrenda, txanden eta eskuratutako guztizko puntuazioaren hurrenkeraren arabera banaturik eta oposizioaldian eta lehiaketaldian izangai bakoitzak lortutako kalifikazioak batuta.



8.2. Prozeduran parte hartzen dutenen puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, oposizioaldian puntuaziorik handiena dutenen alde ebatziko da.

Berdinketak bere horretan badirau, merezimendu profesionalen apartatuan puntuaziorik altuena duen pertsonaren alde ebatziko da. Aurreko irizpideei jarraituta ere, berdinketa hausten ez bada, Kalifikazio-epaimahaiak xede horrekin eginen duen zozketa bakarraren bidez ebatziko da.

9.-Lanpostu hutsak hautatzea eta baldintzak egiaztatzea

9.1. Aurreko tramitea egin eta gero, deialdiko lanpostu hutsak aukeratzeko ekitaldirako deia eginen da, zehaztuz aukera daitekeen lanpostu hutsen zerrenda eta hautaketa egitera deitutako izangaien zerrenda (lanpostu hutsak hautatzeko lehentasun-ordenari jarraituz). Bertan adieraziko da, halaber, izangaiek zer betebeharrak frogatu dituzten eta lanpostu hutsak hautatzeko 10 eguneko epea ematen dela.

Informazio hori Iruñeko Udalaren www.pamplona.es webgunean argitaratuko da, deialdiaren fitxan.

Ondoren, izangaiek, ezarritako epearen barnean, lehentasun-hurrenkeran jakinaraziko dituzte dagokion deialdian nahiago dituzten lanpostu hutsak.

9.2. Ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortua duten izangaiek, sartzeko prozedurarako zehaztutako lanpostu-kopuruan lekua badute eta lanpostu hutsak hautatzeko ekitaldira deitu badira, lehentasuna izanen dute lanpostu hutsak aukeratzeko orduan, gainerako izangaien aurretik.

Aurrekoa gorabehera, aipatutako desgaitasuna duten izangaiek badaude eta desgaitasun horrek eragina badu lanpostu batean edo bestean jarduteko, lanpostuak banatzen hasi aurretik, haien desgaitasunera hobekien egokitzen direnak eskainiko zaizkie, balorazio- eta orientazio-talde eskudunak horri buruz egindako txostenarekin bat.

9.3. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeendako erreserba-txandako izangaiek, sartzeko prozedurarako zehaztutako lanpostu-kopuruan lekua badute eta lanpostu hutsak hautatzeko ekitaldira deitu badira, lanpostu hutsak hautatzeko aukera izanen dute gainerako izangaiekin lehian arituz, puntuazio-hurrenkera kontuan hartuta eta aurreko paragrafoetan aipatutako pertsonen lehentasuna errespetatuz.

9.4. Lanpostu hutsak hautatzeko 10 egun baliouduneko epe horretan bertan, izangaiek horretarako ezartzen den bidearen bitartez aurkeztu beharko dute honako dokumentazio hau:

- Deialdiaren 3. oinarrian eskatutako tituluen agiri originala edo administrazioak edo notarioak konpultsatutako kopia, edo hori erdiesteko eskubideak ordaindu izanaren frogagiriarena.

10.-Izendapen- edo kontratazio-proposamena eta agirien aurkezpena.

10.1. Behin lanpostu hutsak hautatu eta baldintzak egiaztatzeko tramitea amaituta, epaimahaiak organo eskudunari igorriko dio, espediente osoarekin batera, izangaiak izendatzeko edo kontratatzeko proposamena. Proposamenean egonen dira, puntuazio handiena izateagatik, eskainitako lanpostu kopuruan sartzen diren izangaiak.

Izendapen- edo kontratazio-proposamen hori Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es) argitaratuko da.

10.2. Proposatutako izangaiak Iruñeko Udalaren Erregistro Orokorren bidez eta izendapen-proposamena webgunean argitaratzen denetik hasita 10 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dituzte honako agiri hauek:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna egiaztatzen dituen agiri baliokidearena.
- b) Osasun txosten ofiziala, karguaren eginkizunak betetzea eragotziko liokeen akats fisiko nahiz psikiko edo eritasunik ez duela erakusten duena.
- c) Zinpeko deklarazioa edo deklarazio solemnea, adierazten duena ez dagoela ezgaitua edo gabetua eginkizun publikoetan aritzeko eta ez dela bereizia izan administrazio publikoren baten zerbitzutik.
- d) Zin edo promesa, adierazten duena Nafarroako Foru Araubidea errespetatuko duela, Konstituzioari eta legeei men eginen diela eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela.

10.3. Aski justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan izan ezik, agiri horiek adierazitako epean aurkezten ez dituzten izangaiak ezin izanen dira izendatu edo kontratatu, eta baliorik gabe geldituko dira haien jarduketa guztiak, ezertan galarazi gabe beren eskabideko faltsukeria dela- eta legokiekeen erantzukizuna.

10.4. Aurreko apartatuan aurreikusitako kasuan, hutsik geratu den lanpostua beteko da 8. eta 9. oinarrietan aipatzen den izangaien zerrendaren arabera lanposturako baldintzak betetzen dituen hurrengoarekin, eta izangai horrekin aurreko apartatueta adierazitako prozedura bera erabiliko da.

10.5. Deialdi honen xede diren lanpostuetarako baldintzak eta betebeharrak frogatzeko agiriez gainera, beste agiriren bat beharrezkoa bada bere eskudantziarako, proposatzen den



izangaiari eskatuko zaio, eta hark deialdi honen 10.2 apartatuan ezarritako moduan aurkeztu beharko du.

11.–Izendapena edo kontratazioa, lanpostu hutsen adjudikazioa eta jabetza hartzea.

11.1. Funtzionario izendatuko dira, edo lan-kontratudun langile finko gisa kontratatuko dira, kasuan kasuko lanpostuan aritzeko, eta lanpostu hutsak adjudikatuko zaizkie aurreko oinarrietan ezarritakoa betetzen duten izangaiei.

11.2. Izendapenak eta lanpostuaren jabetza hartzeak edo kontratazioak nomina eta plantillako funtzionario edo lan-kontratudun langile finko bilakatuko ditu izendatuak, eta indarreko xedapenek ezartzen dituzten eskubide eta betebeharrak guztiak izanen dituzte. Gizarte Segurantzako araubide orokorrean alta emanen zaie, araubide horretan ezarritakoaren babesean.

Aurrekoa gorabehera, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. puntua aplikatzearen ondorioz (legegintzako foru dekretu horren bidez onetsi zen Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua), Nafarroako Administrazio Publikoen edozein montepioren eskubide pasiboen araubide batean afiliaturik daudenek bi aukera izanen dituzte: edo martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen bidez araututako eskubide pasiboen araubidearen babespean segitzea, edo Gizarte Segurantzako araubide orokorrean sartzea.

11.3. Izendapena, edo kontratazioa, hala badagokio, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, kontuan izanik argitalpen horrek jakinarazpenaren ondorio berberak izanen dituela, hala ezartzen baitu 45. artikuluan urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak.

11.4. Izendatutako edo kontratatutako izangaiek izendapen-ebazpenean horretarako ezartzen den egunean hartu beharko dute lanpostuaren jabetza.

11.5. Emandako epean, eta ezinbesteko kasuetan salbu, jabetza hartzen ez dutenek, Iruñeko Udaleko edo haren mendeko erakunde autonomoko funtzionario edo lan-kontratudun langile finko izateko eskubide guztiak galduko dituzte. Hala bada, deialdiaren 10.4 apartatuan ezarritakoari jarraituko zaio.

11.6. Funtzionario edo lan-kontratudun langile finko bihurtzen den izangairen bati, lanpostuan batere aritu gabe, zuzenean eta berak eskatuta, borondatezko eszedentzia ematen bazaio jabetza hartzearen egunetik beretik, indarreko araudian ezarritako kasuetan, hutsik gelditzen den lanpostua ere deialdiaren 10.4 apartatuan xedatzen den moduan beteko da.



11.7. Aurreko bi apartatueta aipatutako kasuetan, ez da aldatuko izendapenaren edo kontratazioaren aurretik egindako lanpostu hutsen hautaketa. Beraz, egoera horien ondoriozko lanpostuak zuzenean funtzionario edo lan-kontratadun langile finko berriei adjudikatuko zaizkie.

11.8. Euskaraz jakin beharra duten deialdi honetako lanpostuetako batean sartzen direnek, aurrerantzean, hizkuntza hori jakitea nahitaezkoa duten lanpostu hutsak betetzeko deialdietan baizik ez dute parte hartzerik izanen.

Aurreikuspen hori ez da aplikatuko baldin eta, jakin behar den hizkuntza kontuan hartu gabe, hautapen-prozesuko emaitzak aukera ematen bazion interesdunari baldintza hori ezarrita ez zeukan lanpostu bat eskuratzeko.

12.-Aldi baterako kontratuatarako izangaien zerrenda.

12.1. Bat etorrita Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoarekin, oinarri honetan ezarritako prozedurarekin, eta 2017-2019ko aldirako Iruñeko Udaleko zein haren erakunde autonomoetako funtzionarioen eta administrazio-araubidean kontratatutako langileen lan-baldintzei buruzko Hitzarmenaren eranskinean jasotako prozedurarekin –non arautzen baita Iruñeko Udaleko langileen administrazio-araubideko kontratazioa–, aldi baterako kontratazioatarako zerrenda hauek eratuko dira, hautapen-prozesuan parte hartu eta bertan lanposturik eskuratu ez duten izangaiekin:

a) Lanposturik lortu gabe gainditu duten izangaien zerrenda.

b) Hautapen-prozesuko oposizioaldian ezarritako gehieneko puntuazioaren % 30 gutxienez lortu duten izangaien zerrenda.

12.2. Ebazpenaren bidez hamar egun balioduneko epea emanen zaie, ebazpen hori jakinarazi eta biharamunetik aitzina, aurreko apartatuan aldi baterako kontratazioatarako zerrendak osatzeko aurreikusitako izangaiei, jarraian adierazten diren agiriak aurkezteko:

- Deialdiaren 3. oinarrian eskatutako tituluen agiri originala edo administrazioak edo notarioak konpultsatutako kopia, edo hori erdiesteko eskubideak ordaindu izanaren frogagiriarena.

Ebazpen hori argitara emanen da, dagokien langileen zerrendekin batera, Iruñeko Udalaren webgunean.

12.3. Adierazitako epearen barnean eskatutako agiriak aurkezten ez dituztenak zein eskatutako betekizunak betetzen ez dituztenak ez dira sartuko aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendetan, eta galduko dituzte deialdi honetan parte hartzeagatik izan ditzaketen eskubide



guztiak, ezertan galarazi gabe parte-hartzeko eskabidean faltsukeria egiteagatik legokiekeen erantzukizuna.

12.4. Eskatutako betekizunak sarrera-prozedurako eskaerak aurkezteko epea noiz bukatu eta egun horretan bete behar direla ulertuko da, eta, orobat, hautaprobak egin bitartean eta kontratazio-aldiak iraun bitartean.

12.5. Behin agiriak aurkezteko epea amaituta, onetsiko dira, hala behar izatera, aldi baterako kontrataziorako honako izangai-zerrenda hauek, eta argitara emanen dira Iruñeko Udalaren webgunean:

a) Lanposturik lortu gabe gainditu duten izangaien zerrenda.

b) Hautapen-prozesuko oposizioaldian ezarritako gehieneko puntuazioaren % 30 gutxienez lortu duten izangaien zerrenda.

12.6. Probak gainditu baina lanposturik lortu ez dutenen zerrendan, hautapen-prozesuan lortutako puntuazio altuenaren arabera izanen da izangaien hurrenkera. Berdinketarik bada, deialdi honetan ezarritako irizpideekin bat ebatziko dira.

Bestalde, oposizioaldian puntuazioaren % 30 lortu duten izangaien ordena oposizioaldian lortutako puntuaziorik handienak zehaztuko du. Berdinketarik bada, zozketari dagokionez ezarritako irizpideekin bat ebatziko dira.

Zozketa aurretik egin ez bada, prozeduraren une honetan egingen da.

12.7. Aurreko atalean ezarritako hurrenkerari dagokionez, 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoari men egingen zaio, eta, horrenbestez, aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendan, hiru lanpostuetako lehena erreserbatuko da % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten zerrendako pertsonentzat, baldin eta dagozkien hautaprobak gainditu eta dagozkien zeregin eta funtzioekin bateragarri direla egiaztatzen badute, betiere lortutako puntuazioa eta gainditutako proba-kopurua kontuan harturik.

12.8. Zerrenda horiek subsidiarioki aplikatuko dira, funtzio publikoan sartzeko hautapen-prozedura baten ondorioz indarrean dauden kontrataziorako izangaien zerrenden atzetik.

13.–Jarduketan publikotasuna.

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharreko tramiteak ezertan ukatu gabe, epaimahaiaren ebazpen eta jarduketei buruzko informazioa, baita interesdunendako baliagarria izan daitekeen izaera orokorreko beste edozein informazio ere, dagokion deialdiaren fitxan argitaratuko da, eta Iruñeko Udalaren www.pamplona.es webgunean eskuratzen ahalko da.



14.-Errekurtsoak.

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen eta ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez daiteke, deialdia egin duen udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aitzina kontatuta.

Deialdi honen, deialdiaren oinarrien eta haiek aplikatzeko epaimahaia sorburu ez duten egintzen aurka, errekurtsu hauetako bat paratzen ahal da:

- a) Berraztertzeke errekurtsua, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Udalaren webgunean argitaratuko dira hala jarritako errekurtsuak nola haien gainean emandako ebazpenak, hautapen-prozesu honetako interesdunei jakinarazteko eta dei egiteko.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean. Iruñeko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarreko idazkaria, Ana María Elizalde Urmeneta.

I. ERANSKINA

GAITEGIA

1. 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa.
 - a. Atariko titulua: Xedapen orokorrak.
 - b. I. titulua. Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistema. (II. kapitulua: I. titulua: Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren prestazioak eta eskaintzen dituen zerbitzuen katalogoa eta III. Kapituluak: Mendetasuna eta horren balorazioa).
2. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak arautzeko Ordenantza. Iruñeko Udalaren eskumenak etxez-etxeko laguntzaren arloan.
3. Iruñeko Udalaren Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren zerbitzu-karta.
4. Zahartze-prozesua: adineko pertsonen ezaugarri fisikoak, psikikoak eta sozialak. Aztura osasungarriak, nutrizioa eta elikadura adineko pertsonetan. Laguntza teknikoak, zaintza pertsonaletarako, mugikortasunerako eta etxea egokitzeko.
5. Depresioa eta dementzia adineko pertsonetan. Seinale nagusiak eta nola heldu familia-lanetik.
6. Etxez-etxeko artan prebenitu eta zaindu daitezkeen alderdi sozialak.
7. Etxez-etxeko artaren xedeko gizarte- eta familia-egoerak eta osasun-egoerak. Deskribapena, balorazioa eta nola heldu familia-lanaren ikuspegitik.
8. Zer da Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua: Definizioa. Helburuak. Printzipioak. Ezaugarriak. Filosofia. Prestazioak.
9. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua: higieena eta gizarte- zein osasun-arreta.
10. Mendeko pertsonen etxeko mantentze-lana, garbiketa eta antolaketa. Familia-langilearen eginkizuna eta zereginak.
11. Zaintzaileentzako arreta Etxez Etxeko laguntza Zerbitzuan. Familia-langilearen esku-hartzea eta eginkizunak
12. Familia-langileak, nor dira, eginkizunak, harremanak beste langile batzuekin, harremanak erabiltzaileekin eta haien familiekin.
13. Koordinatzaileak: EELZren barruko eginkizunak, harremanak familia-langileekin, beste profesional batzuekin, erabiltzaileekin eta/edo haien familiekin.



14. Autonomia pertsonaleko programako gizarte-langileak auzo-unitateetan: EELZrekin lotutako eginkizunak.
15. Erabiltzaileen arretarako telefono-zerbitzua. Kontzeptua, eginkizunak.
16. Kode deontologiko profesionala. Etika profesionala gizarte-zerbitzuetan.
17. EELZren jarduketa-protokoloa indarkeria- edo abusu-egoeren aurrean. Indarkeriak edo abusuzko egoerak prebenitu eta haiei aurre egiteko gomendioak. Eraso-gertaeren aurrean jarduteko protokoloa.
18. Familia-laguntzako prozedurak eta protokoloak. Erabiltzaileak erori eta atea irekitzen ez badu jarduteko protokoloa. Dementzia duten pertsonekin jarduteko protokoloak.
19. Pertsonarengan oinarritutako arreta integrala.
20. Gizarte-trebetasunak eta gatazkak konpontzeko trebetasunak.



II ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

a) Merezimendu profesionalak:

Administrazio publikoetan kasuan kasuko deialdia argitaratzen den egunera arte egindako zerbitzuak baloratuko dira, gehienez 30 punturekin, puntuazio honen arabera:

- a.1) Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan, deialdiaren xedeko lanpostu berean, aldi baterako egindako zerbitzuak: 4 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko.
- a.2) Iruñeko Udalean eta eta haren erakunde autonomoetan, beste lanpostu batzuetan egindako zerbitzuak: 0,50 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko.
- a.3) Beste administrazio publiko batzuetan, lanpostu berean egindako zerbitzuak: 1,50 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko.

a.1, a.2 eta a.3 apartatuetaarako oharrak:

- 1. a) apartatu honi dagokion puntuazioa gehienez ere 30 puntukoa izanen da.
- 2. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa esleituiko zaio.
- 3. Zerbitzuak baloratuko dira zerbitzu bakoitzaren hasiera egunetik amaierara arte, egindako lanaldiaren ehunekoa edozein dela ere.
- 4. Ez dira baloratuko deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak.
- 5. Administrari laguntzailearen eta ofizial administrariaren lanpostuetan izandako esperientzia berdin baloratuko da (bi deialdietako bakoitzean sartzeko titulazio-baldintzak desberdinak badira ere).
- 6. Izangaia prestakuntzarako zerbitzu berezietan edo jarduneko zerbitzu bereziko egoeran egon den aldiak benetan bete duen lanpostuan egindako zerbitzuak balira bezala kontatuko dira.

Izangaia zerbitzu berezietan egon bada beste arrazoi batzuegatik, edo eszedentzia berezian egon bada, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan, aldi horietako zerbitzuak kontatzeko, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan egin izan balitu bezala kontatuko dira.
- 7. Aurreko azpiapartatueta emandako puntuazioak bateraezinak izanen dira epe berari dagokionean. Halakoetan, kasu bakoitzean handiena den puntuazioa emanen da.

b) Beste merezimendu batzuk: gehienez ere 10 puntu.

b.1) Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan lanpostu berean sartzeko azken prozesua lanposturik eskuratu gabe gainditu izana: 5 puntu.

b.2) Beste titulazio akademiko batzuk:

b.2.1) Titulazio ofizialak eta master-tituluak, maila berekoak edo goragokoak, deialdian sartzeko titulazioa baloratu gabe: 1,25 puntu titulazio ofizial bakoitzeko, gehienez ere 2 titulazio (2,50 puntu gehienez).

b.2.2) Deialdiaren xede den lanpostuarekin zerikusia duten prestakuntza-ekintzak, 50 orduko edo gehiagoko iraupena dutenak eta 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerakoak: 1,25 puntu prestakuntza-ekintza bakoitzeko, gehienez ere 2 prestakuntza (2,50 puntu gehienez).

❖ Lanpostuarekin zerikusia dutela ulertuko da informatikarekin, berdintasunarekin edo prebentzioarekin zerikusia duten zeharkako prestakuntza-ekintza guztiak. Halaber, lanpostuarekin zerikusia duten berariazko prestakuntza-ekintzak ere aintzat hartuko dira.

b.3) Ingelesa, frantsesa, alemana eta euskara: ingelesa, frantsesa edo alemana jakitea, Europar Batasuneko laneko hizkuntzak diren aldetik, baita euskara jakitea ere, baloratuko da, plantilla organikoaren arabera lanpostuan aritzeko hizkuntza horiek jakitea nahitaezkoa ez denean, Gizarte Langileen eta Gizarteratzeko Teknikarien lanpostuetan: 0,50 puntu gehienez hizkuntza bakoitzagatik.

b.2 eta b.3 apartatueterako oharra:

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren pareko jakite-maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiria duenari aurreko apartatueta hizkuntza bakoitzarentzat ezarritako baloraziorik handiena emanen zaio.

Titulu edo ziurtagiri hori izan ezean, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren A1 mailaren pareko titulu edo ziurtagiri bat izanez gero, gehienez eman daitekeen puntuazioaren 1/5 jasoko da; A2 mailaren parekoa izanez gero, 2/5; B1 mailaren parekoa izanez gero, 3/5; eta, B2 mailaren parekoa izanez gero, 4/5.